

Euskadiko 28 enpresek La Habanako Nazioarteko Ferian – FIHAVen parte hartuko dute

- *Kubak kanpo aldera begira duen erakusleihorik garrantzitsuena da feria hau eta **urriaren 29tik, astelehenetik, azaroaren 2 arte, ostirala arte, luzatuko da.***
- *Euskadi pabilioiaren babesean, sektore ezberdinetako euskal enpresek parte hartzen duten sektoreaniztuneko feria bakarra da.*
- *Euskal enpresak astelehenean bertan inauguratuko den euskadiko pabilioian kokatuko dira.*

Donostia - 2018ko urriaren 26a - Gipuzkoako Bazkundera buru izanik eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin Eusko Ganberak Kubara itzuliko dira berriro ere euskal enpresak Kubako merkatura gerturatzeko asmoz. Euskal Ganberak 1999 urtetik antolatzen dute euskal enpresen parte hartzea feria honetan.

Aurtengo edizioa, XXXVI. zehatz mehatz, hilaren 29an, astelehenean hasiko da eta azaroaren 2an, ostiralean amaituko da. Kasu honetan sektore anitzeko 28 enpresek parte hartuko dute, horien artean energia, motoreak, elektrizitate maneiak eta hotel hornikuntza sektoreak nabarmentzen direlarik. Euskal enpresak, astelehenean bertan inauguratuko duten euskadiko pabilioian, 9. zenbakian, kokatuko dira. Expo Kuban 70 herrialde baino gehiago egongo dira ordezkaturak.

La Habanako feria kontaktu gune bat da. Kubako enpresa garrantzitsu guztiak pasatzen diren gunea da, oso feria egokia beraz herrialdean sartzeko edota bezeroak diren edo izan daitezkeen Kubako enpresa guztiekin kontaktuak berritzeko.

Kuba aukera berrien merkatua

Kubako ekonomian egiten ari den aldaketa handiena kanpoko inbertsoreei irekitzeari lotuta dago eta hauek egunerokoan izango duten eraginari. Estatu Batuekin harreman komertzialak irekitzeko kontuak ere eragin berezia izan du gai honetan, nahiz eta hau pixkanaka burutzen ari den. Kontutan hartzekoa da ere Atzerriko Inbertsioen Lege berria, ekonomia dinamizatzeko eta atzerriko inbertsioa erakartzeko proiektu berriei atea ireki dielako, espazio berrien garapenaren sustapenaren bitartez, Mariel Cuba Garapen Gune Berezia den bezalaxe.

Kubara heltzen diren kanpoko inbertsioak honako sektoreetan biltzen dira: oiarrizko industria (energia, meatzaritza eta porlana), turismoa, eraikuntza, industria arina, nekazaritza eta elikadura industria. Espainiako enpresentzat, turismoak eta hoteletarako hornikuntzen kontatuak garrantzitsuak izaten jarraitzen dute (eraikuntza materialak, taldeak, altzariak edota elikadura eta edariak). Espainia Kubaren hirugarren sozio komertziala da Venezuela eta Txinaren atzetik. Dena den, kontutan izan behar dugu azken urte hauetan kanpo merkatuaren hazkundera gelditu egin dela herrialdeak dibisak lortzeko duen zailtasunarengatik, bere esportazioak hazten ez direlako eta atzerritik iristen diren bidalketak batez ere Venezuelakoak murriztuak geratzen ari direlako ordainketa epeak betetzeko zailtasunarengatik.

Esportazioak EAetik Kubara

Euskal Autonomi Erkidegoko enpresek Kubara egiten dituzten esportazioak, herrialdeak euskal enpresen artean sortzen duen interesaren islada da. 2017an esportazio hauek espainiako esportazioen %15a baino gehiago izan ziren, eta aurten Espainiatik Kubarako esportazio orokorren maila berdinari eutsi diote. Herrialdeak dituen finantza gora beherek zailtasunak sortzen dituzte ordainketen konpromisuak bete ahal izateko orduan eta hori dela eta ordainketa epeetan gehiegizko luzatze bat ematen ari da, ekonomi sektore batzuetan batibat.

Esportazioak EAetik Kubara (mila eurotan)

Probintzia	2015	2016	2017	Abuzutua arteko datuak	2017	2018	2018 2017arekiko
BIZKAIA	71.796,08	69.289,70	67.782,28	BIZKAIA	38.383,10	43.959,83	%41,52
GIPUZKOA	64.555,86	49.433,35	49.277,62	GIPUZKOA	34.582,44	28.549,15	%17,48
ARABA	9.410,42	9.771,85	10.385,52	ARABA	7.763,40	8.267,02	%16,36
GUZTIRA	145.762,36	128.494,91	127.445,91	GUZTIRA	90.161,05	75.199,28	%15,83

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347